Agintariak eta Langileria

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRIZAINGO SAILA

3120

ERABAKIA, Epaimahai Kalifikatzailearena, berak ebaluatu baititu Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez (2011ko martxoaren 4ko EHAA, 44. zk.) deitutako probak.

2011ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez (2011ko martxoaren 4ko EHAA, 44. zk.), Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdia egin zen. Aipatutako deialdiko probak ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzailearen idazkariak, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko 2011ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bitartez izendatu zutenak, honako hau

EGIAZTATZEN DU:

Epaimahai Kalifikatzaileak 2011ko maiatzaren 18an egindako bileran, besteak beste, honako hau erabaki duela:

ERABAKIA

2011ko maiatzaren 18ko Erabakiaren bitartez, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko bigarren zatiaren behin betiko emaitzak onartu dira, eta horrela argitaratzen da, Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendariaren 2011ko otsailaren 11ko Ebazpenaz (2011ko martxoaren 4ko EHAA, 44. zk.) eginiko deialdiaren hamabigarren oinarrian jasotakoa betetzeko asmoz.

Erabaki honek ez du agortzen administrazio-bidea, eta haren aurka, interesatuek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Errekurtsoa Epaimahai Kalifikatzaileari edo Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari aurkeztu ahal izango diete interesatuek.

Arkaute, 2011ko maiatzaren 23a.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN IDAZKARIA.

Autoridades y Personal

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3120

ACUERDO del Tribunal Calificador encargado de evaluar las pruebas para acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocadas por Resolución de 11 de febrero de 2011 (BOPV n.º 44, de 4 de marzo de 2011) de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

El Secretario del Tribunal Calificador, designado por Resolución de 21 de marzo de 2011, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, para evaluar las pruebas para acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza convocadas por Resolución de 11 de febrero de 2011 (BOPV n.º 44, de 4 de marzo),

CERTIFICA:

Que en sesión celebrada el día 18 de mayo de 2011, entre otros, el Tribunal Calificador adoptó el siguiente

ACUERDO

Mediante Acuerdo de 18 de mayo de 2011 se aprobaron los resultados definitivos de la segunda fase de las mencionadas pruebas, lo que se indica a los efectos del cumplimiento de lo dispuesto en la base duodécima de la Resolución de 11 de febrero de 2011 (BOPV n.º 44, de 4 de marzo), de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convocaban pruebas para la acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza.

Contra el presente Acuerdo que no pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán formular recurso de alzada ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Dicho recurso podrá interponerse ante el Tribunal Calificador, o bien, ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

En Arkaute, a 23 de mayo de 2011.

EL SECRETARIO DEL TRIBUNAL CALIFICADOR.